

rian dago euskal literaturaren mugimenduaren muinetik aski aparte bizi direla, anitzek gutxi eta txarto ezagutzen dutelarik.

J. S. M.

PURUA, BURUA.—Adiskide Zatarain-en gaizki ulertze bati oharra egin nahi diot. Igazko urtean Bilboko Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca dalakoak argitara zuen Azkue-ren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoak «Notas al cancionero» izenez eka-
rren eraskinean, beste zenbait oharren artean, E-32 horrialdean, neri zuzenketa eginez, eibartarron «zarraren puruan» eta «eññaren pu-
ruan», barbarismoak direla zion; hau da, erderakadak: «de puro viejo» eta «en puro hacer». Ditekeana, zeren nik hori ez bait dut ukatu, ez aipatu. Hau da, ez dut inoiz esan erderakadak ez direnik, baizik, giputxen «zarraren buruz» eta «egiñaren buruan»-en kide-
koak direla baino. Eta hau zeharo beste gauza bat da. Gainerako iritzia ontzat hartzen dut. Gure «urtien puruan»-etik ez ote gipuz-
koarren «urteen buruan»? Ez gainera Eibarren bakarrik, baizik biz-
kaitarrok (mintzairaz bizkaitarrak geranok), «puruan» erabiltzen dugu
gipuzkoarrak beti «buruan» erabiltzen duten kasu berean.

Argi gelditu bedi: ez duk inoiz esan hori «barbarismo» eztenik. Beharbada hala izanen da. Hala baldin bada, gipuzkoarren «buruan» hori bera noski.

J. SAN MARTIN.

ARRAIÑA, ARRAINA, ARRAIA. — Gipuzkoarrak, *arrainari*, *arraia* deitzen ohituak daude eta ezta batere harritzeko hortik zen-
bait nahasketa sortzea. Anitz holako dute gipuzkoarrak beren labur-
kizunetan, eurak konturatu gabe gainerako euskaldunontzat ilun ager-
tzen direnak. Lapurdik eta Bizkaiak bezin itsaso zabala izanik ere,
hitz hau ez dute erabiltzen besteak haina jator. Eta bukaerako tar-
tean «n» edo «ñ» galtzeak, hitzari bere itxura kentzen dio.

Itsasotik harat arkitzen den Nafarroako Baztanen ere hobeto da-
kite. Gehiago da, baztandarrak ongi bereizten dakite *arraina* eta
arraña; handia edo txikia diranean. Zeren, haientzat «ñ», txikigarria
da (diminutivo da), mugazandikoentzat bezala. Eta uskeri itxurazko
gauzatxo hoiek, uste baino jatortasun gehiago ematen diote hizkun-
tzari, zehatz eta aberats adierazteko behinikpehin.

Joxe Artetxe adiskideak argitara berri duen *De Berceo a Carlos Santamaría* izeneko liburu bikainean honelako huts bat nabari dala